


Euskal Literaturaz goza

Kearen fiordoa

Iñaki Petxarroman



Hiru itsasontzi abiatu dira, 1615. urteko udaberrian, Donostiatik Islandiara, baleak arrantzatzeko asmoz. Aurreko urteotan bezala, hango Ipar Mendebaldeko Fiordoetako magistratu Ari Magnussonekin sinatutako hitzarmen bat dute horretarako baimen. Alabaina, Danimarkako erregeak moztu egin nahi du kanpoko balezaleen jarduna, bere erresumaren monopolioa zaintze aldera, eta guztiz debekatu du edozein arrantza mota uhartean. Bizkaitarren gaineko heriotza zigorra ere ezarri du erregeak. Horrek bi paretan artean jarri du Ari Magnusson. Kontratu bat du euskaldunekin, baina erregearen agindua bestaldean. Arrantza denboraldia pasatzen utziko du magistratuak, nahiz eta gertutik jarraitu euskaldunen jarduna.

Iñaki Petxarroman

Iñaki Petxarroman Lasarte-Orian jaio zen eta kazetaritzan lizentziatua da. Hasieran, Egin egunkarian Lasarte-Oriako berriemaile bezala egin zuen lan eta ondoren, Euskaldunon Egunkarian lan egin zuen. Kazetari bezala ingurumenari buruzko gaietara egin die jarraipena eta gaur egun, Berriako zuzendariordea da. Hainbat liburu idatzi ditu:

- Nafarroa, iragana eta geroa.
- Katearen begiak.
- Begirada bat Kubari.
- Lurra, zorua bailitzan
- Su haietatik Ke hauek

Ekainaren 11an 19:00etatik-20:00etara

IKASBIDE KULTUR ELKARTEAN

Edu Zabalak zuzendua